1994ko OTSAILAren 24ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamalauko otsailaren hogeitalauean, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea eta Ramon Bengoetxea Altuna; Iñigo Arreseigor Bengoetxea ez da agertu; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

U-1 INDUSTRIALDEA

Lizartzako U-1 Sektore Industrialeko Ordenazioaren Plan Partzialaren Abantzea jendaurrean egoteko epea amaitu ondoren, eta Zabala Jaunak eginiko alegazioei edo iradokizunei erantzuteko, Planaren Erredaktatzaile Ekipoaren Txostena.

LIZARTZAKO U-1 SEKTORE INDUSTRIALEKO ORDENAZIOAREN PLAN PARTZIALAREN ABANTZEARI EGINIKO ALEGAZIOEI BURUZ, ERREDAKTATZAILE EKIPOAREN TXOSTENA

I.- SARRERA

Lizartzako U-1 Sektore Industrialeko Ordenazioaren Plan Partzialaren Abantzea jendaurrean egoteko epea amaitu ondoren, eta, Zabala Jaunak eginiko alegazioak ikusirik, Erredaktatzaile Ekipoak, Txosten hau luzatzen du.

II.- EGINIKO ALEGAZIO EDO IRADOKIZUNAK

1.- Ordenazioari dagokion, Sektoreko delimitazioa ez dago ados, Laguntzazko

Arau Subsidiarioetan ezartzen zenarekin. Horregaitik, Plan Partziala, Laguntzazko Arau Subsidiarioak diotenari egokitu edo eta, hauen aldaketa tramitatu behar da. Laguntzazko Arauak aldatuz gero, Zabala Jaunak, bere jabetzakoa den 10.000 m2 lurra, Sektorean sartzea eskatzen du.

2.- Gaur egun dagoen zubia, "Sektorez Kanpo" bezala aurrikusten da Plan Partzialean, Akzeso berriarekin, bera ordezkatuaz.

Beste aldetik, Laguntzazko Arauak Sektorerako Sarrera berriaren enplazamendua ezartzen dute eta, Plan Partzialean ezartzen denarekin, bat ez dator. Horrenbestez, Plan Partziala, Laguntzazko Arauetan ezartzen denari egokitu behar zaio, edo bestela, hauen aldaketa tramitatu.

Gainera, gaur egun dagoen zubia, partikularrak egin eta ordaindutakoa denez, bera bota beharko balitz, partikular hoiek indemnizatuak izan behar lukete.

III.- ERREDAKTAITZAILE EKIPOAREN TXOSTENA

1.- Alegazio honi dagokionean, proposatzen diren Sektore mugen aldaketak, proposatutako akzeso berriak behartutakoa dela esan behar da, honekin, sektore lurra, hasieran ziren 41.741 m2.en aurrean, 2.314 m2.tan gehitzen delarik.

Sektorean sartzen diren lurrak, Urbanizaezinezko lurrak direnez, Laguntzazko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala egin beharko litzateke eta tokatzen den tramitazioaren arabera, lur hoien klasifikapena aldatu, Urbaniza Ezinezko Lurrak izatetik, Urbanizatzeko Gai diren Lurretan bihurtuaz.

Esan beharra dago, lurren gehikuntza honek ez duela aprobetxamendu lukratibo handiagorik suposatzen, Sektorean lur gehiago sartzeko, alegantearen proposamenetik urrutik gelditzen delarik; gehiago oraindik, gaur egun dagoen demandak ez duelako inolaz ere justifikatzen.

Horregatik, eta tekniko ikuspuntu batetik, eskatutako gehikuntza hori, gaur egungo eskaeratan jasatzerik ez dago.

2.- Plan Partzialean, biharko egunean Industri Poligonoa izango denaren sarrera, CN-130 Errepidearekin zuzenean batutzen duen, nibeleko intersekzioaren bidez, aurrikusten da.

Intersekzio honen kokapena, era honetan egin diren ikerketa eta kanpo lanetan justifikatzen da, hauek, Sektore Industrialera, ibilgailuen sarrera-irteerako maniobren errestasuna, ikuskapen eta Bide Seguritatean, garanti haundiagoa ematen dutelarik.

Gainera, Laguntzazko Arauetan aurrikusten den sarrera, Leaburu-Gazteluko Herrian kokatzen da, honek, projekzio eta ejekuzioa, Udal horrek gune horretarako onartuko lituzken hirigintz arauei lotuta geldituko liratekelarik; bainan sarrera berria, Lizartzako Udalerrian kokatzen da, honekin, beste herri batetako Planeamenduko kanpo uztea lortzen delarik.

Beste alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiako Errepide Departamentutik luzatutako txostenaren arabera, konexioko puntu berria aztertuz gero, guztiz onartzekoa dela eta Laguntzazko Arauetan aurrikusitakoa, baino abantaila gehiago dituela, ikusten da.

Lotura berriaren aurrikuspenak, Laguntzazko Arauen aldaketarik ez du behar, arrazoi haunegatik:

- Laguntzazko Arauetako U-1 Sektoreko Araudi Partikularrak diote "Planoan finkotzen diren ordenazioak, orientatiboak eta ez binkulanteak dira, erabateko alineazioak, Plan Partzialaren bidez finkotuko direlarik".

- Lizartzako Laguntzazko Arauak, behin betirako onartzen dituen, Gipuzkoako Foru Aldundiako Diputatuen Kontseiluak, 1.988ko Ekainaren 14ean hartutako erabakiak dio "Behar beharrez

erredaktatu behar den Plan Partzialaren Agirian konkretatu eta pormenorizatuko dira, Sektorearen Ordenazioak, tokatzen den, Ordenazio Planoan aurrikusten dena binkulantea ez delarik".

- Gaur egunean indarrean dagoen, Lur Legearen (Ekainaren 26ko 1/1992 Errege Dekretu Legislatiboa) 83.2.a f artikuluak ezartzen du: Ordenazioko Plan Partzialak, behar beharrez, trazatua eta Sektorearen Komunikazio bideak eta komunikazioko Sistema Orokorrari loturak eduki behar dituela dio.

- Kriterio sendoa da, Laguntzazko Arauen Aldaketa ez onartzea, Plan Partzialetan desarroilatzean, lurrari egokitzeko, komunikazio bideen trazatuen erreajustearen bidez, haien Arauak betetzen direnean.

Gaur egun dagoen zubiari dagokionez, eta beraren gain, partikularren titulo dominikala akreditazio ezaren salbu, Plan Partzialean ez da aurrikusten bera botatzea; beraz, ez da inolako indemnizaziorik tokatzen.

Alkateak, Zabala Jaunak aurkeztutako alegazio edo iradokizunei erantzunaz, Erredaktatzaile Ekipoak eginiko Txostena eta aldi berean, U-1 Sektore Industrialeko Ordenazioaren Plan Partzialari, lehen onarpena ematea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

U-1 SEKTOREKO ORDENAZIOKO PLAN PARTZIALAREN ARABERA, LIZARTZAKO LAGUNTZAZKO ARAUEN ALDAKETA PUNTUALERAKO PROPOSAMENA

1.- ALDAKETA JUSTIFIKATZEN DUTEN ARRAZOIAK

Lizartzako U-1 Sektoreko Ordenazioko Plan Partzialaren Proiektoan aurrikusten den Ordenazioaren arabera, Sektore eta CN-130 Errepidearen arteko lotura berria konstatatzen da, Laguntzazko Arauetan aurrikusten zenatik

ezberdina.

Arrazoi tekniko eta operatiboak, bihar eguneko Poligono Industrialeko lotura kokatzea aholkatzen dute; alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiako Errepidetako Departamentuak emandako eritzien arabera, irtenbide egokiagoa izateagatik, eta bestetik, lotura biarioaren ejekuzioa erresten duelako, Lizartzako Udalaren erabakitzeko kapazitateari ez dagozkion, hirigintz arauei, ez baldintzatuaz. (Lizartzan kokatuaz eta ez Leaburu-Gaztelun).

Era guztitara, proposatzen den interserkzioak, Laguntzazko Arauetan delimitatzen den, U-1 Sektoreko lurretatik kanpo dauden, eta 2.314 m2 terrenoak hartzen ditu.

U-1 Sektoreko lurra, Urbanizatzeko Gai diren Lurrak bezala klasifikatzen diren bitartean, Urbaniza Ezinezko Lurrak bezela klasifikatzen dira besteak.

Azken egoera honek, Plan Partzialetik ateratzen ez den erabaki bat behar du zeren, Oinarrizko Planeamenduaren berezko determinazioen aurkakoa izanik, lurra klasifikatzeko ahalmena, desarroiloko Planeamenduko instrumentuen bidez, galerazita gelditzen delako.

Horrenbestez, konexio biarioaren kokapen berria posibilitatzeko, Ordenazioa objektu duen Sektoreakiko, klasifikazio ezberdineko lurren okupazioaren bidez beharrezkoa da, Laguntzazko Arauen Aldaketa Puntuala egitea, aipatutako lurrei dagokionean, honela, aldaketarekin, Urbanizagarri diren Lur bezala, hartutako gunea klasifikatzea eta U-1 Sektoreko delimitazioan sartzea.

Guzti honen arabera, Lizartzako Laguntzazko Arauen Aldaketa Puntualerako Proposamena, aho batez onartu da.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAREN ORDEZKOTZA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Administrari Laguntzailearen Ordezkotza betetzeko, azterketak eginez

gero, puntuaziorik onena, Mª LUISA MENDIA BARRIOLAk lortu du.

Horren arabera, Mª LUISA MENDIA BARRIOLA, Administrari Laguntzailearen Ordezko bezela kontratatua izan dela eta lanean, Martxoaren 1etik aurrera hasiko dela, jakinerazten du.

Izendapena, aho batez onartu da.

1.993 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA KONTU OROKORRA

Idazkari-Kontuhartzaileak, 1.993 urteko Aurrekontu Orokorraren Kontu Orokorra aurkeztu du.

Aurkeztutako Kontu Orokorrean sartzen diren agiriak, hauek dira:

1.993 urteko Aurrekontu Orokorraren Likidazioa.

1.993 urteko Aurrekontu Orokorraren Kreditu Aldaketa.

1.993 urteko A.B.I.L.

1.993 urteko Diru-Kontuak eta Ondare Administrazioko Kontuak.

1.993 urteko Aurrekontu Orokorraren Kontu Orokorraren buruz, Idazkari-Kontuhartzaileak eta Hazienda Batzordeak luzatutako aldeko txostenak ikusirik, eta Kontu Orokorra bera azterturik, 1.993 URTEKO AURREKONTU OROKORRAREN KONTU OROKORRA, aho batez onartua izan da.

TOLOSALDEA GARATZEN AJENTZIA

Nazioarteko ekonomiak orokorrean izan duen krisialdia, eta bereziki euskal ekonomiak jasan duena, berezko ezaugarriekin nabaritu da gure eskualdean, ekonomia eta enpleguaren dinamizatzaile izan diren gure industri-sareko ohizko sektoreetan indar bereziaz eragin du. Azken emaitza gainbeherako egoera da,

sektore produktibo guztietara zabaldua eta gure herritar guztien bizitza-kalitatea ukitzen duena. Aldi berean, Tolosaldeak egitura aldetik dituen gabeziak, dela lanbide formazioa, dela lur industriala, etab, irteera zaildu egiten du.

Egungo desafioek giza esfortzu kontzertatua eskatzen dute, eta Tolosaldeak eskueran izan ditzakeen potentzialitate guztiak mugiaraztea; eskualdea sektore publikotik bultza daiteke eta bultzatu behar da, eta batez ere, udal sektore publikotik, nahiz eta ahulezi finantzieroan haundia izan; lanak irudimen handikoa eta kontzertatua izan behar du. Laguntza ekonomikoarekin batera, partikularren esku krisialdiaren irtenbidea erraztuko duten tresnak jartzearekin batera (lurra prestatzetik, azpiegituretara; lanbide profesionaletik, enpresak sortzeko aholkularitza eta babesa emateraino; laguntza fiskalak...) egin beharra dago sektore publikoaren egitura eta funtzionamenduaren berrikuntza ere, orokorrean eta Tolosaldeko udal sektorearena bereziki.

Udal sektore publikoaren egiturak, bere dispertsioak, 45.000 biztanle izatera iristen ez den eskualdearen dispertsio demografikoa adierazten du; bere ahultasun finantzieroa; bakarkako erreferentzien gabezia eta koordinaziorako tresnen gabezia ....; guzti honek ahultasun objetiboa dakar, udal sektore publikoak bere eginkizun dinamizatzailea eraginkortasunez aurrera eraman dezan.

Zerbitzu jakin batzuen gestiorako udalerri txikiek bereziki dituzten zailtasunak gaineratu behar zaizkio guzti honi, eta honek dakar elkartze eta elkarlan formulak bultzatu beharra, tokian tokiko zerbitzu publikoen gestiorako.

Adierazitako arazo asko guztiok ukitzen gaituztenak dira eta dudarik ez, alternatibak ere bat eginda tajutu behar direla. Horretarako, funtsezko balioa da hiritarrak bere eskualdeko partaide senti daitezen. Biztanleek ikusten dute Tolosaldea erreferentzi kolektibo gisa eta elkarbizitzarako unitate kultural, sozial eta ekonomikoa.

Tolosaldeko Plan Estrategikoaren inguruko eztabaida eta akordioen inguruan, hasera-haseratik indarra hartu zuen ideia izan zen udalerri bakoitzak isolatuta duen egiturak sortzen dituen mugak gainditzekoa, eta ulertu ere ulertu

zuten agentzia baten sorrera, bidezko izaera juridikoaz eta izen horrekin edo beste batekin, aipatu mugak gainditzeko tresna izan daitekeela, eskualdearen garatze eta berrindartze bidean indarrak elkartzeko aukera ematen baitu.

Guzti honengatik, erabaki hau onartzea proposatu da

1.- Bere babesa eta oneritzia ematea Tolosaldeko Plan Estrategikoan jasotako helburua jakin bati, hau da, Tolosaldearen garapenerako tresna edo agentzia sortzea, behar den era juridikoan eta modurik egokienean, hala erabakitzen duten gainerako Udalekin batera.

2.- ..... izendatzea aipatu helburua lortzeko egin beharrekoak egiteko; Udal honetako Idazkariaren aholkularitza teknikoa izango du. Eman beharreko urratsak, hauek izango ditu:

a) Hartu beharreko izaera juridikoak bidezkoena eta egokiena zehaztu, tresna edo agentzia osatzeko; helburua izango du Tolosaldearen berrindartzea, promozioa eta garapen konomikoa, eta horrekin batera, tartean dauden udalerri guztien arteko koordinazioa eta elkarlana bultzatzea, tokian tokiko zerbitzuen gestiorako; horretarako, bidezkotzat jotako funtzioak emango zaizkio, aipatu helburua eta ordenamendu juridikoa kontutan hartuta.

b) Aipatutako tresna edo agentziaren gorpuzkera osatzeko beharrezko diren Memoria eta gainerako betebeharrak idatzi.

c) Estatutuen proiektua idatzi.

d) Tolosaldearen garapen ekonomikorako agentzia edo tresna osatzeko asmoa dagoenez, asmo honekin zerikusirik izan dezaketen bestelako prestaketa-iharduerak.

Tolosaldea Garatzen S.A. Ajentzia sortzeko proposamena, aho batez onartu da.

BIZTANLEEN UDAL ERROLDA

Idazkariak, hitza harturik, 1.994ko Urtarrilaren 1era eginiko Biztanleen Udal Erroldaren Berrikuntza aurkeztu du, eta honela gelditzen da:

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
1.993-01-01ra			
Eskubidedun Biztanlegoa	695	370	325
1.993 Urtean Altak	6	2	4
1.993 Urtean Bajak	23	15	8
1.994-01-01ra			
Eskubidedun Biztanlegoa	678	357	321

1.994ko Urtarrilaren 1era eginiko Biztanleen Udal Erroldaren Berrikuntza, aho batez onartu da.

AEK-REN MOZIOA

Euskara Ikastea, Denon Eskubidea

1.993an, hiritar orok euskara ikasteko duen eskubidearen aurka, AEKko euskaltegietan aritutako 917 heldu Nafarroan eta 16.863 Euskal Autonomi Elkartean aipatu bi eremuotako administrazioek inolako dirulaguntzarik gabe utzi zituztela eta egoera berberean gaudela 1.994 urtean kontutan izanik;

Neurri horrek kalteturiko euskaltegiek eta oro har AEK-k gizarte ekimenaren adierazle gisa, helduak euskaldunduz eta alfabetatuz zein euskararen aldeko kontzientziaketan (KORRIKA....) aspaldidanik egiten duen lana ezagutu beharrean, berau kolokan jarri eta larriki oztopatzera datorrelako iritzikoak izanik;

Euskarak bizi duen egoeran eta bere normalkuntza prozesuan, helduen euskalduntze-alfabetagintzan diharduen gizarte ekimena eta administrazioaren arteko gatazkak adostasunerako jarrerak eta neurriak bultzatuz konpontzeko behar larria dagoelakoan;

Behean sinatzen dugunok Gobernuak, hiritar orok euskara ikasteko duen eskubidea onartuaz eta horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz, euskaltegi guztiak aintzatetsi eta diruz lagun diezaiela eskatzen dugu.

AEK-k aurkeztutako mozioa, aho batez onartu da.

TORTURAREN AURKAKO HERRI EKIMENAREN MOZIOA

Proposamen honen xedea torturaren zigorgabetasunezko praktika bermatzen duen egungo marko legala indargabetzea da.

Zigorgabetasunezko praktika hau arrazoi ezberdinegatik ematen ari da: egungo marko poliziala guztiz autonomoa eta kontrolik gabea delako, epaitegi politiko gisa diharduen Entzutegi Nazionala epaitegi berezi modura inposatzeagatik, eta azkenik, Kode Penal espainiarrean tortura kasuei ematen zaien tratamenduarengatik.

Egungo legedia judiziamendu kriminaleko legearen bitartez eta atxiloketa egunak 5 baino gehiagor aluzatuz eta atxilotua erabat inkomunikatuta edukiz, atxilotuak ez du inolako eskubiderik, Konfidantzazko inorekin harremanetan egoteko. Ondorioz, komisaldegi eta koartelak inoren kontrolpetik ihes egiten dute eta aspaldiotan "zulo beltzak" bezala ezagutzen dugun bihurtzen ari dira. Zulo beltz hauek dira, hain zuzen ere, dagoen zigorgabetasunaren oinarrietako bat.

Beste oinarri bat Epaitegi Bereziaren inposaketa da, zeina sorrera eta ihardunbideaz Frankismo garaiko TOP delakoen ondorengo zuzena bait da. Epaitegi honek tortura kasu frogatuen aurrean ezer jakin nahi ez izatez gain, torturapean egindako adierazpenetan oinarritu egiten da, atxilotuak

gartzeleratzeko. Entzutegi Nazionalak jokabide honen bitartez, torturaren erabilpenean eta iraupenean lagundu egiten du.

Azkenik, Gobernu espainiarrak "Torturaren aurkako konbentzioan" ateratako agiria sinatu arren ez du bertan tortura kasuei ematen zaien tratamendua bere gain hartu nahi. Ondorioz, egungo Kode Penalean tortura delitu egindako kalte fisikoaren arabera xedatzen denez, tortura delitua egiteagatik zigorren bat ezarri denean, ez da bat etorri berez tortura praktikatzeak duen larritasun maila berarekin.

Beraz, eta bukatzeko, helburua egun tortura praktikak Estatuan duen zigorgabetasunarekin bukatzen da. Alde batera utziko dugu gerta daitezkeen kasu bakoitzean benetan ematen den ala ez. Politiko esku dago egungo marko juridiko-legala aldatzea, baina gure zeregina behingoz aldaketa hori eman dadila lortzea da.

TORTURAREN AURKAKO HERRI EKIMENA

Proposamena:

* Judiziamendu Kriminaleko legearen barruan dagoen Legedi Antiterroristaren ezabatzea.

Hemen agertzen diren artikuluak, 1.988 Maiatzaren 25eko 4/1.988 Lege Organikoaren barruan daude. Bertan, judiziamendu Kriminaleko Legearen aldaketa hau aurreko Legedi Antiterroristaren oinarrizko elementuak sartzean datza.

384 bis artikuloaren ezabapena: Artikulo honek neurri berezia eta eskubide murrizketak sortuko dituen delitu kasuak zehazten ditu.

384 bis artikuluaren egungo testua honako hauxe da.

Firme un auto de procesamiento y decretada la prisión provisional por el delito cometido por persona integrada o relacionada con bandas armadas o

individuos terroristas o rebeldes, el procesado que estuviese ostentando función o cargo público quedará automáticamente suspendido en el ejercicio del mismo mientras dure la situación de prisión.

520 bis artikuluaren lehenengo bi parrafoen ezabapena: Atxiloketa epealdia 3tik 5 egunetara luzatzeagaitik eta inkomunikatuta egoteko baimena ematen duelako.

520 bis artikuloen bi parraforak hauxe diote:

1.- Toda persona detenida como presunto participante de alguno de los delitos a que se refiere el artículo 384 bis será puesta a disposición del Juez competente dentro de las setenta y dos horas siguientes a la detención. No obstante, podrá prolongarse la detención el tiempo necesario para los fines investigadores hasta un límite máximo de otras 48 horas, siempre que, solicitada la prórroga mediante comunicación motivada dentro de las 48 horas desde la detención, sea autorizada por el Juez en las 24 horas siguientes. Tanto la autorización cuanto la denegación de la prórroga se adoptarán en resolución motivada.

2.- Detenida una persona por los motivos expresados en el número anterior, podrá solicitarse del Juez que decrete su incomunicación, el cual deberá pronunciarse sobre la misma, en resolución motivada, en el plazo de 24 horas. Solicitada la incomunicación, el detenido quedará en todo caso incomunicado sin perjuicio del derecho de defensa que le asiste y de lo establecido en los artículos 520 y 527 hasta que el Juez hubiere dictado la resolución pertinente.

527 artikuluaren ezabapena: Artikulo honek atxolotuak jasan behar duen inkomunikazioaren edukin eta ondorioak zehazten ditu. Atxilotuak honako eskubide hauek galerazten ditu:

Atxilotuaren konfidantzazko abokatu baten asistentziarako eskubidea.

Atxilotuaren sendiko edo gertuko batek atxiloketaren eta dagoen lekuaren

berri izateko eskubidea.

Egin beharreko dilijentziak bukatu ondoren abokatuarekin elkarrizketa pribatua izateko eskubidea.

527 artikuluak hauxe dio:

El detenido o preso, mientras se halle incomunicado, no podrá disfrutar de los derechos expresados en el presente capítulo, con excepción de los establecidos en el artículo 520, con las siguientes modificaciones:

a) En todo caso su abogado será designado de oficio.

b) No tendrá derecho a la comunicación prevista en el apartado d) del número 2.

c) Tampoco tendrá derecho a la entrevista con su abogado prevista en el apartado c) del número 6.

553 artikuloaren ezabapena: 384 artikuloaren barruan dauden ekintzen aurkako egileei egindako etxe edo beste lekuren baten miaketak edo ta atxiloketak egiteko polizia baimen judizialaren beharraz salbuesten duena.

553 artikuloak hauxe dio:

Los agentes de policía podrán, así mismo, proceder de propia autoridad a la inmediata detención de las personas cuando haya mandamiento de prisión contra ellas, cuando sean sorprendidas en flagrante delito, cuando un delicuente, inmediatamente perseguido por los Agentes de la Autoridad, se oculte o refugie en alguna casa o, en caso excepcional o urgente necesidad, cuando se trate de presuntos responsables de las acciones a que se refiere el artículo 384 bis, cualquiera que fuese el lugar o domicilio donde se ocultasen o refugiasen, así como al registro que, con ocasión de aquella, se efectue en dichos lugares y a la ocupación de los efectos e instrumentos que en ellos se hallasen y pudieran

guardar relación con el delito perseguido.

Del registro efectuado, conforme a lo establecido en el párrafo anterior, se dará cuenta inmediata al Juez competente, con indicación de las causas que lo motivaron y de los resultados obtenidos en el mismo, con especial referencia a las detenciones que, en su caso, se hubieran practicado. Así mismo, se indicarán las personas que hayan intervenido y los incidentes ocurridos.

* Entzutegi Nazionalak Epaitegi berezi gisako gaitasunaren kentzea.

Gaitasun hau 384 bis artikuloan azaltzen diren delituak epaileari dagokio, Frankismo garain zeuden TOP delakoen ondorengo zuzena izateagatik, bere iharduera guztiz politikoa izanik. Estatu demokratiko batek izan beharko lituzkeen oinarrien aurka joateagatik eta azkenik, mundu osoan onetsia den eskumen territorialaren oinarrizko printzipioarekin hauteagatik.

Judiziamendu Kriminaleko Legea aldatzeko maiatzaren 25eko 4/1988 lege organikoaren "Behin behineko xedapena"ren indargabetzean gauzatuko ltzateke, era berean, eskumen territorialerako printzipioa onartuz. Epaile Naturak gai hauen berri izan ahalko luke.

Aipaturiko "Behin Behineko Xedapena"k honako hau dio:

Los Juzgados Centrales de Instrucción y la Audiencia Nacional continuarán conociendo de la instrucción y enjuiciamiento de las causas por delitos cometidos por personas integradas en bandas armadas o relacionadas con elementos terroristas o rebeldes cuando la comisión del delito contribuya a su actividad, y por quienes de cualquier modo cooperen o colaboren con la actuación de aquellos grupos o individuos.

Konpetentzia hau arautuko duen legedia berehalakotasun judizialaren printzipioan oinarritu behar da.

* Kode Penal espainiarrean tortura delituaren xedapen egokia.

Horrela egungo egoerari aurre egiteko. Torturaren aurkako konbentzioaren 1. artikuloan torturari ematen zaion definizioa. Kode Penalean sartzea eskatzen dugu. Konbentzio hau Estatu espainiarrak izenpetu zuen.

Estatu espainiarrak 1.987 urtean izenpeturiko konbentzioaren 1. artikuluak honela definitzen du tortura delitua.

Todo acto por el cual se infringa intencionadamente a una persona dolores o sufrimientos graves, ya sea físicos o mentales, con el fin de obtener de ella o de un tercero información o una confesión, de castigarla por un acto que haya cometido o se sospeche que haya cometido, o de intimidar o coaccionar a esa persona o a otras, o por cualquier razón basada en cualquier tipo de discriminación, cuando dichos dolores o sufrimientos sean infringidos por un funcionario público u otra persona en el ejercicio de sus funciones públicas, a instigación suya, o con su consentimiento o aquiescencia. No se considerarán torturas los dolores o sufrimientos que sean consecuencia únicamente de sanciones legítimas, o que sean inherentes o incidentales a estas.

Torturaren Aurkako Herri Ekimeraren Mozioa, aho batez onartu da.

ALKATETZAREN DEKRETUAK

Idazkariak, aurreko Bilkuratik gaur egundaino bitartean luzatu diren Alkatetzaren Dekretuen berri eman du:

AGUSTIN GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA Jaunari, Apeztegi Berri Etxeari fatxada eraberritu, erretila eta teilatu hogalaren luzapena, etxe aurreko zoladura eta balkoia eraberritzeko baimena eman zaio, baldintza hauekin:

Hegala edo irtenunean 0,80 m.koak izango dira gehienera, hau da luzatu nahi den, Tolosaldekoa.

Teila zeramikazko kurboa izan behar du eta koloren eta itxuraz

lehengokoaren arabera edo antzekoa.

Gaur egunean daukan aldaparekin eraberrituko da.

Obrak irauten duen bitartean eta kalean andamiorik edo garabiarik jarri behar bada, hauek ez dute arriskurik sortuko pertsonentzako, eta itxutuarik egin behar balitz 2 m.ko altura izango du.

Ezingo da materialik es tresnarik pilatu obrarako finkatzen den perimetrotik kanpoan.

Zaborrak ez dira goitik behera botako eta hortarako zabor ontzira dagokion elementuez egingo da, inguruan hautsa ez zabaltzeko; ontziak kalean eragozpenik ezingo du sortu.

Sarrerako balkoiak, hau da lehen solairuan dagoenak, zabalera 1,10 m. izango du gehienera. Bukaera oraingoa manteduko da, hau da, zuriberritua.

Etxe aurreko zoladura egiterakoan, gaur egungo lurraren kotak errespetatuko dira. Etxe azpiko semisotanoan ibilgailu gordailuz erabiltzeko sarrerako aldapa aldatu beharko litzateke.

Fatxadaren leiho eta teen neurriak mantenduko dira eta aldatzekotan egurrezkoak jarriko dira.

URJENTZIZKO GAIAK

Alkateak hitza harturik, zera dio:

Bilkura Nagusirako deia egin ondoren, Iberdrola eta EMUAko Langile eta ELA eta LAB Sindikatuen mozioak aurkeztuak izan dira.

Hurrengo Bilkurarako uzteak, gaiak asko atzeratuko liratekenez, urjentzi bidez, gaurko Bilkuran tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

ELA - LAB SINDIKATUEN MOZIOA

Tolosaldea, azken urteotan, kalte handia ari da jasaten bere sare industrialean, Eskualdeko langabezia eta txirotzearekiko ondorio ekonomiko eta sozial larriekin.

Egoera hau, hobetzetik urrun, okerragotu egiten da egunez egun, gaur egun ia sektore guztiei eraginez (papergintza, automobila, osasungintza, metalgintza,...) eta ez dirudi epe motzera hobetuko denik.

EMUA itxi, Asuncion Klinikan 56 kaleratze eta Tolosaldeako hainbat Enpresatan plantillak egokitzeko planteamenduak horren adibide garbi dira.

Tolosaldeako ELA eta LAB Sindikatuak, arazo honetan inplikazio zuzena duten agente direnez, arduraz bizi dugu zenbait neurri enpresarial eta instituzional, dakartzaten ondorio larriak direla eta, alarma soziala handia eragiten ari bait dira gure komunitatean.

Guzti horrengaitik, proposatu nahi diogu LIZARTZAko Udalari, onar dezan, ondorengoa:

1.- Tolosaldea dagoen egoera larriaren aurrean bere kezka eta, ahal duen neurrian, Enplegua mantendu edo sortzen lagunduko duten neurri guztiak laguntzeko konpromezua adieraztea.
2.- Gaur egun Erregulazio Espedientean dauden langileekiko elkartasuna adieraztea, bereziki beraien lanpostuak galtzeko zorian daudenekiko.

3.- Botere Publikoei (Diputazioa, E.J. ....) eskatzea bultza ditzatela Tolosaldearen berraktibazio ekonomikorako beharrezko ekintza instituzionalak eta gure esku dauden mekanismoak bultzatzeko nahia, epe motz batetan, Eskualdeko Ajente Sozialak hitzegiten has gaitezen zein

neurri diren oraintxe beharrezkoak egungo industria eraispena geldiarazteko eta Tolosaldean beharrezko den Enplegua mantendu ahal izateko.

4.- ELA eta LAB Sindikatuei, Eskualde Ajente Sozial guztiak konbokatuz, bilera baterako deia egitea, eskatzea.

ELA eta LAB Sindikatuek aurkeztutako mozioa, aho batez onartu da.

EMUAKO LANGILEEN MOZIOA

EMUAko langileak, Enpresa Zuzendaritzak proposatutako "iste" planteamenduaren aurrean, ondorengoa proposatzen diogu LIZARTZAko Udalari onar dezan:

a.- EMUA isteko planteamenduari ezezko borobila ematea.

b.- EMUAko Zuzendaritzari eskatzea 185 langileren kontratu etete espedientea berehala geldiaraztea, 94-02-09tik martxan dagoen espedientea.

c.- Lanpostuen defentsan Langile Asanbladak deitutako mobilizazio guztiak deitzeko konpromezua.

EMUAko Langileek aurkeztutako mozioa, aho batez onartu da.

IBERDROLA

Energia salmentaren fakturapenei dagokion Prezio Publikorako, Udalerri hoentan 1.993 urtean indar elektrikoen fakturapenean, Iberdrolak aurkeztu duen zinezko aitorpenaren berri eman da.

1.993 urteko fakturazioa 34.402.850,- pezta izan zen eta Udalak onartutako araudiaren arabera, 1,5%eko tasa ezarri behar zaio.

Horren arabera, Udaleko Kutxan, 516.043,- pezta sartu beharko ditu, Iberdrolak.

Zerga likidazio hori, aho batez onartu da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamart'erdiak direnean.